

5 ZENTZUMENEN KUTXA

1. Oraingo erronka objektu desberdinekin kutxa bat sortzea izango da, eta zure gurasoek, anai-arrebek ... begiak estalita eta kutxan sartu duzun objektuari dagokion zentzua erabiliz asmatzea. Prest?
2. Egin behar duzun lehenengo gauza kutxa bat bilatzea da, ziur etxean asko daudela. Aurkitu duzu? Primeran! Segi!
3. Orain bi objektu bilatuko ditugu zentzumen bakoitzerako.

- **Usaimena:** bi gauza bilatu, usaintzearekin bakarrik, zer diren asma ahal direnak, baina ez jarri oso erraza.

- **Gustua:** bi gauza bilatu, txupatzearekin bakarrik, zer diren asma ahal direnak, baina ez jarri oso erraza.

- **Belarria:** bi gauza bilatu, entzutearekin bakarrik, zer diren asma ahal direnak, baina ez jarri oso erraza.

- **Ukimena:** bi gauza bilatu, ikutzearekin bakarrik zer diren asma ahal direnak, baina ez jarri oso erraza.

- **Ikusmena:** hau da errazena eta ez dira begiak estali behar, beraz, zaila den zerbait bilatu.

4. Bukatzeko, bilatu musuzapi bat, antifaz bat ... begiak estaltzeko eta etxean zurekin dauden guztien bila joan! Egin ezazu banan-banan, kutxaren barruan zer dagoen ikus ez dezaten!

Idatzi hemen azpian zein objektu aukeratu dituzun:

5 zentzumenen kutxa

